

Zuhotza  
euskaraz elkarfe... deba

# BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 192. alea - 2015eko urtarrila



**Doctor Deseok girotu du  
Animadeba jaialdia**



# SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



## ASKETA, S.L.

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



**Hazitik**  
ZURE EKODENDA

San Roke Kalea 6, DEBA  
telf.: 943 02 99 63  
e-mail: hazitik@gmail.com

**Jarri zure publizitatea  
Berriketan aldizkarian!**

**Zuhatzia**

943 191 383  
berriketan@zuhatzia.com

**www.aukera-inmobiliaria.com**  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

**kutxa**

**kutxabank**

**RAIKETAK S.L.**

**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behe - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel./Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**haizea**  
estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik

**ISABEL  
FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behea, 20820 DEBA  
943 029 186

**MAZKUNE**  
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA  
1975etik zuekin!

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

**Calbeton**

**JATETXEA**

**Agustín  
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera  
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**L.A.**

**LARRAMENDI  
ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**sasoi**

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfáticoak -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba  
Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**  
Zuhatza Euskara Elkartea  
**Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:**  
Nagore Dorransoro, Xabier Laka, Ina Oiarzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorransoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietia, Mikel Aizpurua, Debako Gazte Asanblada, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:**

Izaro Aulestiarte

**Azaleko irudia:**

Erredakzio taldea

**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta

Koldo Aperribai

Tlfnoa.: 943 19 13 83

**Logotipoaren diseinua:**

Iñaki Elosua

**Maketazioa:**

Leire Rubio

**Inprimategia:**

Euskalinpri

**Tirada:**

1.400 ale

**Lege gordailua:**

SS-246-2009

ISSN 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILEA**



**LAGUNTZAILEAK**



Debako Udala



HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURAREN SAHAR  
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURAL  
Viceconsejería de Política Lingüística



Gipuzkoako Foru Aldundia

# aurkibidea

04

## GUTUNAK

Korrikaren 19. edizioa ospatuko da aurten;  
"Debako Sare martxan!"

05-06

Kolaborazioak: Mikel Aizpurua ("Ispilua"),

Debako Gazte Asanblada (14. urtemuga, iruditan)...



08-09

## GABONAK

Olentzero eta Mari Domingi, San Silbestrea, Gaztelekuko ekimenak...



10

## KOLORE ANITZ

Giro ederra Kolore Anitz Egunean: haurrak eta gurasoak jolasean, bertsoak poteoan...



16-17


## ZORO FERIA

Aurtengo Zoro Feriaren irudiak, bertan banatutako sariak, Urrezko Aizkora, urte berriko idi-probak...



18

## ZERBITZUAK



*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Korrika badator!!!

Lagun euskaltzale hori, agur t'erdi:

Jakingo duzunez, aurten Korrikaz gozatzeko aukera izango dugu berriz ere.

2015eko martxoaren 19an Urepeletik abiatuko da 19. Korrika, martxoaren 29an Bilbora heltzeko. Debatik martxoaren 23an igaroko da.

Eta hori posible izan dadin, ehunka pertsonak egiten dugu, aurrez, lan handia elkarlanean.

Korrikan parte hartzeko moduak askotarikoak eta anitzak dira. Gutun honen bidez, gurekin bat egin dezazun eskatzera gatozkizu, horretarako otsailaren 3an, 19:00etan, Zuhatzaren bulegoan egingo dugun Korrika batzordearen deialdira etorritz.

Bertan 19. Korrikaren nondik norakoak eta gure herrian egingo direnak ezagutzeko aukera izango duzu, eta horrela nahi izanez gero, herrirako bestelako ekitaldiak proposatzekoa ere bai. Horrez gain, herrian egin beharreko lanak



zerrendatu eta banatuko ditugu. Jakin bada-kigu denok ez ditugula aukera berdinak gure ekarpenak egiteko, eta horregatik, hain zuzen ere, konpromisorik gabe etor zaitezten eskatzen dizugu. Bertan entzundakoaren arabera erabakiko duzu, gero, zeure ekarpena zein izan daitekeen; eta, inolako aukerarik izango ez bazenu ere, Korrika geure herrian izango dela ezagut eta zabal dezazun da gure nahia.

Korrikak hasiera-hasieratik aldarrikatu duen legez, Korrikaren helburuak bete daitezten guztion ekarpena eta ahalegina dira beharrezkoak. Denon parte-hartzeaz lortuko

dugu Euskal Herri euskalduna eta guztion esku eta oinei esker eraman ahal izango dugun euskararen lekukoa Urepeletik Bilboraino. Ahalegin horretan zeure laguntza estimagarria izango dugulakoan, besterik gabe, hurrengo otsailaren 3an (asteartean) izango dugu elkarren berri Zuhatzaren bulegoan.

*Zuhatza Euskara Elkarte*

## Debako Sare martxan!



*Ander Salegi*

Hausnarketa prozesu baten ostean, ekainean euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko herritarren sarea aurkeztu zuten Euskal Herriko hainbat esparrutako norbana-koek. Mugimendua Sare izenarekin bataiatu zuten, euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea ahalbidetuko duen herritar sarea bat ehuntzea baitu helburu.

Orduetik, herrietako sare xumeak ehuntzen joan dira

Euskal Herri osoko bizilagunak; apurka-apurka, baina erritmoa galdu gabe. Deban ere hala izan da, eta hainbat dira mugimenduarekin bat egin duten herritarrak.

Eskerrik asko aurkezpen ekitaldia antolatzen lagundu eta aurkezpenera gerturatu zinetenoi.

**Izan zu ere Sarekide, behar zaitugu!**

*Debako Sare*

# MIKEL AIZPURUA

## ISPILUA

Harry Potter fikziozko azti ezagunak ispilu handi bat topatu zuen bere ikastetxeko gela urrun batean. Ispilura begira jarri eta ez zuen bere burua bertan ikusi, jaioberritan galdu zituen bere gurasoak baizik. Bertan zela bere laguna Ron azaldu zen eta Harryk emozioz esan zion: "Etorri, begira, begira!". Ron hurbildu eta ispiluari begira jarri bezain laster aurpegia alaitu zitzaion. Bertan ez ziren Harryren gurasoak agertzen.

Ispiluak Roni bere burua heroi bihurtuta itzuli zion, txapelketa bat irabazi eta jendeak aupaka goratzen zuen Ron. Halako batean ikastetxeko zuzendaria agertu eta ordu luzeak ispiluari begira eman zituen Potterri galdetu zion: "Honezkero jakingo duzu ispiluak zer egiten duen, ezta? Ez du errealitatea erakusten, norberaren desioak baizik. Bihar bertan eramango dute ispilua hemendik ezkutura".

Balizko ispilu horren aurrean jarriz gero, zer ikusiko luke pertsona zoriontsu batek? Ezer ere ez. Eta idazle batek? Idaztearen arrazoiak ikusiko lituzkeela uste dut. Neroni ere jarri naiz ispiluari begira eta gauza asko ikusi ditut: Katalunia eta Euskal Herriko selekzioak ikusi ditut Eurokoparako sailkatzeko lehian; ez dut ostiraleroko pankarta atze-

ko jenderik ikusi, bertaratzeko motiborik ez dagoelako; lagunak bertso-saio ederra gozatzen ikusi ditut eraberritutako Zubeltzu zinean....

Irudiak bata bestearen atzetik arrapaladan pasatzen dira nire begien aurretik. Itziar herri eder ikusi dut eta Deba ere herri eder. Itziar eta Deba bi desio bihotz bakar batean. Behialako Greziar tragediako Antígona etorri zait burura.

Antígonaen bi anaiek elkarren kontra borrokatu zuten. Batak aita zuten

erregearen aurka egin zuen eta

besteak alde. Biak hil ziren

baina aitak agindu zorrotza

eman zuen: bere alde egin

zuen semea lurpera zezate-

la ohiturak zioen bezala eta

ohore handiz. Beste semea-

ren gorpua, ordea, laga

zezatela mendian harrapari-

en bazka izan zedin.

Antígona bi legeon menpe

zegoen: lege naturalak zioen,

personak betiko atsedena har

zezan, gorpua lurperatu behar

zela; erregearen legeak, berriz, kon-

trakoa zioen. Edozer eginda ere, lege


baten zein bestearen kontra jokatuko zuen

Antígona. Hori da egoera tragikoa, erabateko

aterabide onik ez duena. Nire aurreko ispiluak,

berak ere erabaki ezinik, krak egin du. Mila zati-

tan puskatu da askoren buru-bihotzak bezala.





## 14. URTEMUGA, IRUDITAN:

Aurten ere, abenduarekin batera, Debako Gazte Asanbladaren urtemuga ospatu dugu! Ekintza ugari ospakizun bat izan da, herri osoari eta adin guztietako pertsoneri bideratuta. Musika desberdineko kontzertuak, ipuin kontalaria eta bazkari

herrikoia izan dira, beste hainbaten artean, jarduera aipagarrienak.

Beste behin ere herriaren aldetik erantzun polit eta deigarri bat jaso dugu, eta espero dugu horrela jarraitzea datozen 14 urteetan ere!



## Animadeba, urtez urte indartzen doan jaialdia

### “Puxikumea” izenburuko lanak iragarriko du 2015eko animazio zinemaldia

Debako Animazio Zinemaldiaren zazpigarren edizioa abenduaren amaieran ospatu zen eta jaialdiak harrera beroa izan zuen publikoaren aldetik beste behin ere; urtez urte indartzen ari den seinale.

Animadebak animaziozko zinema ezagutarazi eta sustatzea bilatzen du –baita helduen artean ere–, eta horretarako izaera ezberdineko hitzorduek hartzen ditu bere baitan. Euskal Herriko animaziozko zinemaren aitzindari bezala eza gutzen dugun Juanba Berasategiren hitzaldiarekin abiatu zen, adibidez, jaialdia. Eta, egun berean, berak zuzendutako filmak ere proiektatu zituzten Agirre jauregian.

Haurrei zuzendutako pelikulak ere izan ziren ikusgai aurtengo zikloan, eta Imanol Ituño magoak eskainitako ikuskizunak jende ugari bildu zuen ispiluen gelan.

Bestetik, 2015eko jaialdia iragartzeko balioko duen gortina lehiaketaren irabazlea Elena Rodrigo Fernández eta Oscar Bilsborough-en “Puxikumea” izan da –[www.animadeba.com](http://www.animadeba.com) atari digitalean ikus daiteke euren lana–. Sortzaile

sarituak Portugaletekoak dira.

“Ekialdeko izarra”, “El viento se levanta”, “Tormesko itxu-mutila”, “Ernest & Celestine”, “Futbolin”, “Hair High”, “Kimuak & Nontzefilmak” laburmetraiak... zabala izan da Animadebaren azken edizioak eskainitako filmen emanaldi-zerrenda. Hitzordu gehienak Agirre jauregian burutu ziren, baina ez denak. Izan ere, jaialdia agurtzeko azken luzemetraia Gaztetxean eskaini zen.

Ezin aipatu gabe utzi, era berean, abenduaren 29an Doctor Deseok plaza zaharrean eskainitako kontzertu akustikoa. Giro hotza, benetan, gau hartakoa, baina emanaldi txukuna egin zuen taldeak eta publikoak harrera beroa egin zien musikariei. Animadeba jaialdiaren antolatzaileetako bat den Aitor Oñederra sortzaile debarrak Doctor Deseorekin eginiko azken bi kontzertuetan erabilitako proiektzioen moldaketak eta lan berriak ikusteko aukera izan zen bertan. Eta kontzertuaren amaieran esker oneko txalo zaparrada jaso zuen Oñederrak berak ere musikarien alboan oholza gainean zela.



## Mari Domingi eta Olentzero bisitan

Urtero-urtero etorri ohi dira Mari Domingi eta Olentzero gure herrira, eta azken gabonetan ere bertan izan ditugu. Opariak banatu aurretik, haurrak ezagutu eta haien eskutitzak jasotzeko ohitura dute gure protagonistek. Hori dela eta, eskolan ere izanak ziren aurrez etxeko txikienen eskaeren berri izaten.

Abenduaren 24an iragarritako orduan eta lekuan agertu zen bikotea, Periko astoa alboan zuela. Gabon kantak abestuz ehunka lagunek egin zieten ongiatorria plaza zaharrean, eguerdi partean. Eguraldia lagun, kalejira txiki bat egin eta Foruen plazan bildu ziren gero guztiak. Olentzerok eta Mari Domingik lanak izan zituzten bertaratutako haur guztiekin egon ahal izateko, baina giro polita sortu zen udaletxeko arkupeetan: trikitalari eta txistulariak, irribarre urduriak, salda beroa eta txorizo muturra... hori guztia, beste behin ere, jendearen borondateari eta guztien elkarlanari esker. Eskerrik asko guzti-guztiei!



## 400 bat korrikalari VI. San Silbestrean

Urte zaharrari agur esateko lasterketa herrikoian adin guztietako korrikalariak elkartu ziren. Abenduaren 31n ospatu zen Deba-Itziar Xtreme Triatloi taldeak Debako Udalaren laguntzarekin antolatutako San Silbestrearen seigarren edizioa, eta guztira 401 parte-hartzaile bildu ziren hitzorduan (146 haur eta 255 heldu).

Haurtzako bi lasterketa antolatu ziren herrian zehar (adinaren arabera ibilbide jakin bat betearaziz) eta helduek 5,2 kilometroko lasterketa egin behar izan zuten. Aritz

Ruiz de la Torre izan zen azkarrena gizonetakoan, eta Iñaki Sagarna eta Igon Mancisidor gelditu ziren bigarren eta hirugarrenen, hurrenez hurren. Emakumezkoetan, Nerea Perales (Mendaro) izan zen garaile eta bigarren postuan sailkatu zen Nora Mandiola. Antolatzaileek jakinarazi zuten 17 otar oparitu zituztela guztira.

Esker onez agertu dira, bestetik, Luzaroko ikasleekin, San Silbestrea iragartzeko erabili diren karteletarako marrazkiak egin izanagatik.







## GABONAK GAZTELEKUAN!!!

Aurtengo gabonetako egitarau berezia, azaro hasieran abiatu genuen! Kanean ipintzeko material birziklatuarekin egindako gabonetako apaingarriak, bigarren eskuko produktuen azoka, futbolin, billar eta ping-pong txapelketak, gabonetako kartel lehiaketa...

Gabonetako oporrak hasi bezain laster, Txuri Urdin, bolera eta zinemara irteerak. 15 urtekoek antolaturiko diskoteka eta Moru lagun senegaldarrarekin izandako hizketaldia, pelikula, ostiraletako futbol taldearen partida Bergarako gazteekin, 16 urtekoek gainontzeko gaztetxoagoei antolatutako bingoa eta Debacup irteera.

Aipatzekoa da Debacup futbol torneoa antolatzen den bosgarren urtea den arren, lehenengo aldiz talde mistoek eman behar zutela izena, hau da, nahitanahiez neska-mutilez

osaturiko taldea izan behar zela aurtengoan. Espero genuena baino arrakasta handiagoa izan da: 11 talde, Deba-Itziarko 12-16 urte bitarteko 110 neska-mutil inguru. Aurtengo nobedade honen baitan, saria ere aldatu egin dugu eta "talde eredu-garriari" eman diogu saria, giro atsegina eta berdintasunean oinarritua duen taldeari. Zorionak antolatzaile eta saria ongi irabazi duten Ane Txurruka, Endika Ruiz, Elaia Oiartzabal, Xabi Larrañaga, Malen Arakistain, Olatz Matias, Julen Perez De Albeniz, Peru Sancho, Pablo Ron, eta Naroa Lakari.

Hor goian bildu ditugu egindako ekimenetan ateratako zenbait argazki.

*Gaztelekuko hezitzaileak*



## KOLORE ANITZ EGUNA

Pasa den abenduaren 26an (ostirala), Kolore Anitz Eguna ospatu genuen herria alaitu eta koloreztatzeko asmoarekin. Goizerako Oka erraldoi bat prestatu genuen umek eta gurasoek elkarrekin parte har zezaten. 8 talde osatu genituen guztira!

Oka jolasari kalejira batekin eman genion hasiera eta kalejira bukatu eta segidan ekin genion Debako karriketarik bueltak emateari. Gogoz eta pozik ibili ziren bai haur bai guraso, dado eta proba artean!

Arratsaldean, berriz, gazte-helduei zuzendutako bertso-poteoa prestatu genuen, Debako Bertso Eskolako kideen laguntzaz, euskal hitz eta doinuekin belarriak alaitzeko. Antton eta Josune etorri ziren gure artera kantatzera. Mila esker goizeko zein arratsaldeko ekintzetara hurbildu zineten guztioi, eta Antton eta Josunerri. Aurten ere herriko kaleak alaitzera eta koloreztatzera animatzen zaituztegu!

Eskerrik asko!

*Kolore Anitz Aisialdi Taldea*

Seven Clovers  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



BERRIKETAN GAZTEA

Ohartu orduko iritsi zaigu 2015a!!  
Urte berri on guztioi!!!

Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.  
2015eko urtarilla



**Urte berri on!**

Konturatu gainerako heldu zaigu urte berria, eta urtearekin batera etorriko dira aukera berriak eta lagun berriak ere!

Urtea hasi den unean, gabonetako oporrez gozatzen jarraitzen genuen, zoriontasunez. Izan ere, gabonetan, ospakizun ugari izaten baititugu.

Abenduaren 23an hartu genituen oporrak eskolan eta 24ko gauean familiarekin egon eta elkarrekin afaltzeko aukera izan genuen.

Hilaren 25ean, goizean goiz esnatu eta gabonetako zuhaitzaren azpian Olentzerok guretzat utzitako opariak aurkitzen ditugu eta guztiok poz-pez irteten gara kalera guk jaso berri ditugun opari horiek beste guztiei erakustera. Ondoren, bazkari ederra egin ohi dugu familiarekin.

Urteko azken egunean, abenduaren 31n, afaria izaten da familiarekin kanpikadak entzun arte. Eta bertan ospatzen dugu guztiok urte berriaren hasiera.

Errege egunean, bestetik, erregeek ere –Meltxorrek, Gasparrek eta Baltasarrek– opariak ekartzen dizkigute eta guztiok pozez zorutzen egoten gara. Nola ez ba? Zuek ere gabonetan guk bezain ondo pasa izana espero dugu. Ondo-ondo hasi 2015. urtea ere!!! Urte berri on!

EGILEAK: Itsaso Iciar eta Olatz Iruña



# ELKA RRIZ KETA

**Horra,  
horra,  
gure  
Olentzero!!**



Luxuzko protagonista daukagu hilabete honetako elkarrizketan. Kosta zitzaigun berarekin hitzordua egitea, baina azkenean lortu genuen Olentzerok gure galderei erantzuteko tartetxo bat eskaintzea. Lanez lepo ibili arren, gustura hartu gintuen. Hona hemen prentsa tailerreko kideok egindako galderak eta ikazkinak botatako erantzunak:

**Zer sentitzen duzu hainbeste haur zure zain daudela jakitean?**

Poz handia sentitzen dut, zalantzarik gabe.

**Gustura egiten al duzu lan hau?**

Bai, gabon garaietan lanez lepo ibiltzen naiz, azken orduan gauza ugari egin behar izaten dira eta. Baina oso gustura ibiltzen naiz ni. Dena den, beste norbaitek egin nahiko balu, egin dezala! (kar-kar-kar).

**Mari Domingik laguntzen zaitu beti. Eta zuekin batera ikusten dugu Periko astoa ere urtero-urtero. Askok laguntzen al dituzte?**

Bai, laguntza handia izaten dut bien partetik.

**Opari ugari banatu behar izaten dituzu. Nondik hasten zara?**

Menditik behera hasten naiz opariak banatzen.

**Opariak ez ezik, ikatza ere banatzen al duzu?**

Bai, noski! Ondo portatzen diren umeei opariak ematen dizkiet, baina gaizki portatzen direnei ikatza uzten diet nik.

**Haurrek eskutitz asko idazten dituzte zuretzat... guztiak irakurtzen al dituzu?**

Bai, guzti-guztiak. Horretarako idazten dituzte eskutitzak, eta beti irakurtzen ditut.

**Batzuek irribarre politikak egin arren, zure aurrean negarez ere hasten dira hainbat eta hainbat haur... Nola daramazu hori? Zer sentitzen duzu?**

Nahiko gaizki sentitzen naiz halakoetan, baina ohituta nago jadanik. Gehienei azkar pasatzen zaie.

# OPORRAK, OPARIAK, URTE BERRIA...

Hilabete honetan oporrak, opariak... izan ditugu hizpide. Hona hemen ikasleei egin dizkiegun galderak:

- 1.- Ondo pasa duzu gabonetan? Non egon zara? Norekin?
- 2.- Zer opari jaso duzu? Ikatzik?
- 3.- Eskolara gogoz itzuli al zara?
- 4.- Zer moduz pasa duzu Zoro Ferian?
- 5.- Urte berria ondo hasi al duzu?



## Julia Ron:

- 1.- Bai, oso ondo. Deban eta Ezkarain egon naiz, familiarekin.
- 2.- Dirua, arropa eta CDak. Ikatzik ez.
- 3.- Bai, gogoz (ironiaz).
- 4.- Oso ondo.
- 5.- Oraingoz ondo doa.



## Maria Perez:

- 1.- Bai. Deban egon naiz familiarekin.
- 2.- Arropa eta dirua. Ikatzik ez.
- 3.- Pixka bat.
- 4.- Ondo.
- 5.- Bai.



## Patxi Aizpurua:

- 1.- Bai. Deban egon naiz, familiarekin.
- 2.- Futboleaz aritzeko botak eta dirua.
- 3.- Ez.
- 4.- Ondo.
- 5.- Bai.



## Luken Rodriguez:

- 1.- Bai. Deban egon naiz, familiarekin.
- 2.- XBOXean aritzeko jokoak. Ez.
- 3.- Ez.
- 4.- Ondo.
- 5.- Bai.



## Andoni Iburguren:

- 1.- Bai. Etxean egon naiz, familiarekin.
- 2.- Jokoak. Ikatzik ez.
- 3.- Ez.
- 4.- Ondo.
- 5.- Ondo.




## Paule Aranberri:

- 1.- Bai. Deban egon naiz, familiarekin eta lagunekin.
- 2.- Arropa eta dirua. Ikatzik ez.
- 3.- Ez.
- 4.- Ondo.
- 5.- Bai.




## Julen Izagirre:

- 1.- Bai. Etxean egon naiz, familiarekin.
- 2.- Eskopeta. Ikatzik ez.
- 3.- Ez.
- 4.- Ondo.
- 5.- Bai.




# DenBord-pasaak


## LOTU PUNTUAK



## LABIRINTOA



## BOST EZBERDINTASUNAK



EGILEAK: Sara Goikoetxea eta Paola Iñurrieta

LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:



Debako Udala

PRENTSA TALERRA 2014-2015

Maite Iglesias	Itsaso Iciar
Leire Amesti	Naia Agirregabiria
Maialen Beristain	Paola Iñurrieta
Sara Goikoetxea	Olatz Irusta
Janire Salegi	Aiora Zubizaray



Koordinatzailea: Joseba Agirreoa

## Deban ere lanean hasita dago EH Bildu koalizioa maiatzeko udal hauteskundera begira

EH Bildu martxan da Deban ere. Pasa den legealdian posible izan ez zena errealitate izango da 2015eko maiatzean egingo diren udal hauteskunderetan.

Abenduan hasita, lanean ari gara Herri Programa egokiena osatu eta programa hau aurrera eramateko lantalde onena antolatuzeko.

Abenduan lehen Herri Aurkezpena egin genuen eta urtarrilean udalaren lantzen diren arlo desberdinen diagnostikoa osatu dugu, Agirre jauregiko erakusketa gelan egindako bi batzarretan. Batzar hauetan parte hartu dutenek, udalaren ordezkari izateko pertsona egokienak proposatzeko aukera izan dute.

Prozesu honek otsailean jarraitu izango du. Hurrengo batzarra otsailaren 12an, osteguna, izango da. Bertan, arlo edo batzorde bakoitzerako



dauden ideiak plazaratu eta lehenetsuen arabera antolatuko ditugu. Honekin batera ideia edo proiektu hauek aurrera eramateko ordezkariak proposatzeko prozesuarekin jarraituko dugu.

Deba berritzen jarrai dezagun,

prozesu honetan parte hartuzera gonbidatzen zaitugu. Gurekin harremanetan jartzeko idatzi [deba@ehbildu.net](mailto:deba@ehbildu.net) helbidera edo kontsultatu [deba.ehbildu.eus](http://deba.ehbildu.eus) bloga.

*EH Bildu Deba*

## Rexu Arakistainen ipuin bat saritu dute Azkoitian

“Maite bisita” izenburuko lanarekin Bizenta Mogel XXXIII. Ipuin Lehiaketako hirugarren saria Debara ekarri du Rexu Arakistainek -duela bi urte egin zuen bezalaxe, hain zuzen ere-. Enara baten istorioa kontatzen du ipuin sarituak eta haurrentzako dago idatzita.

Euskarazko ipuin lehiaketa hori Azkoitiko Kultur Elkarteak antolatzen du, Udalaren laguntzarekin. Abenduaren 19an egin zen sari-banaketa ekitaldia eta bertan 200 euroko saria eta oroigarria eskuratu zituen Rexuk.

Idazteko zaletasuna eta trebezia lehendik ere erakutsiak zituen. Besteak beste, “Ane eta bere arranoa” ipuinarekin Debako Iratxo Ezkutuak sariketa irabazi zuen 2006an, eta “Deba” aldizkarian ere argitaratu ohi dituzte bere euskarazko idatziak.



## Rafael Bravoren poesia, 2014ko Lasarte-Oriako literatur sarituen artean



Lasarte-Orian ospatutako 28. Literatur Lehiaketan Debako Rafael Bravok irabazi du Gaztelaniazko Poesia kategoriako saria, “La casa apagada” izenburuko lanarekin.

Adin ezberdineko haur, gazte eta helduek hartu dute parte lehiaketan, hainbat kategoriatan eta guztira 753 lan aurkeztu dira. Horieta 56 aritu dira lehiaketa gaztelaniazko poesiari dagokion kategorian, eta Rafael Bravoren lana saritu du epaimahaiak. Azaroaren 22an banatu zituzten sariak -irudian, Rafael Bravo eta Lasarte-Oriako Pablo Barrio alkatea-.

Hau ez da debarrak jasotzen duen lehenbiziko literatur saria; besteak beste, 2013an Deban egindako “Deba ehun hitzetan” lehiaketan ere lehen saria berak irabazi zuen gaztelaniaz idatzitako kategorian -“Mimbres” lanarekin, hain zuzen ere-. “Deba” aldizkarian ere idazten du Bravok.



# Zoro Feria 2015







## Ferian banatutako sariak

Urte berriko ferian, Txillarre baserriko Peio Rubiok irabazi zuen **barazki lehiaketa** -iaz ere berak lortu zuen lehenengo postua-. Elgoibartarrak 300 euroko saria eskuratu zuen, Alfonso Gonzalez, Ignacio Javier Larrañaga eta Joseba Elosuak osatutako epaimahaiak hala erabakita. Bigarren eta hirugarren postuan, berriz, Itziariko Doniene-Berri baserriko Miriam Arrizabalaga eta Arizaga baserriko (Soraluze) Ezozi Etxeberrria gelditu ziren, hurrenez hurren.

**Frutei** dagokienez, lehenengo saria Mutrikuko Sagarmiña baserrira eraman zuen Antonio Iparragirrek -posturik onena aurkezteagatik ere bera saritu zuten-; bigarren saria Edurtzeta Atutzari (Igorreko Jauriberrigoikoabehekoa baserria) eman zioten eta hirugarren saria Antoni Murgiondok (Gabiriako Behekoetxe baserria) lortu zuen.

Doniene-Berri baserriak jaso zuen herriko posturik onenari eskainitako saria (150 euro). Eta, bestetik, Sorazu Haundi baserriko Miren Iturri Altuna ere saritu zuen epaimahaiak, herrian "hobekien kudeatutako basoa" berea zelakoan.

**Gazta-lehiaketako** epaimahaia Jose Ramon Agiriano, Mireia Alonso, Jesus Artola, Josu Mugerza, Pili Manterola, Maribi Altzibar eta Xabier Osak osatu zuten. Lehen saria (350 euro eta oroigarria) Aixtra baserriko (Araia) La Lezeri eman zioten; bigarren saria, Joseba Insaustiri (Ordiziako Otatza baserria); eta, hirugarrena Mutrikuko Beñat Egañari (Goienetxe gazta). Andutzene baserriko M<sup>a</sup> Jesus Gurrutzaga izan zen herriko lehena.

**Debabarreneko Ezti lehiaketako** epaimahaiak, bestalde, hiru sari banatu zituen: Oñatiko Juan Carlos Galdos (140 euro), Debako Julian Villena eta Nagore Dorransoro (110 euro) eta Elgoibarko Jose Alberto Eguren dira hiru sarituak.

Guztira 110 postu izan ziren urtarrilaren 3an ospatutako urte berriko ferian. 19 baserrik hartu zuten parte barazki eta fruta lehiaketan, 14 gazta-ekoizlek gazta-lehiaketan eta zortzi erlezainek aurkeztu zituzten beren eztiak lehiaketara.



## Aitzol Atutxa eta Ugaitz Mugertza, txapeldun Urrezko Aizkoran

Ehun bat lagun bildu ziren pasa den urtarrilaren 4an Deban ospatutako Urrezko Aizkoraren saioaz gozatzeko. Aldats pilotalekuan burutu zen hitzordua, bosgarren urtez jarraian.

Ikuskizun polita eskaini zuten aizkolariek eta harri-jasotzaileek. Hogeita lau enbor moztu behar izan zituen aizkolarik bikoite bakoitzak -sei modalitatetan- eta Aitzol Atutxak eta Ugaitz Mugertzak osatutako bikoteak lortu zuen garaipena lehian, Ruben Saralegi eta Mikel Larrañaga baino erakustaldi finagoa eginez. Iaz ere bikoite bera gailendu zen Urrezko Aizkora txapelketan.

Bestetik, urtarrilaren 4ko txapelketak harri-jasotzaileen erakustaldiaz gozatzeko aukera ere eman zien pilotalekura bertaratutako zaleei. Joseba Ostolaza eta Idoia Etxeberrria izan ziren protagonista nagusiak harriarekin lanean.

## Zaldibiko idiek irabazi dute aurtengo idi-proba lehia


Zaldibiko idiak izan dira garaile aurtengo urte berriko idi-probetan. Gaztelu Iturgintzako idiek burutu dute aurtengo marka onena, 56 plaza eta 2,60 metro eginda -iazko irabazlearen marka hautsi dute, gainera-.

Oriora joan da bigarren saria, Iñaki Olideren idiek egindako lanari esker (56 plaza). Eta Billelako Iñaki Lopategi gelditu da hirugarren postuan, 55 plaza beteta.

Urtarrilaren 1ean hasi eta 7an amaitu dira aurtengo idi-probak. Guztira hogeitaz aritu dira lehian eta, antolatzaileen esanean, orokorrean "maila bikaina" erakutsi dute guzti-guztiek, marka handiak lortuz. Ohi bezala, zale ugari hurbildu da Debako Euskal Jolas probalekura.



Ander Salegi



## Agenda

## Urtarrilak 30, ostirala

-19:30. **Azken ostirala.** Euskal preso eta iheslari politikoaren eskubideen aldeko elkarretaratzea. Foruen plazan.

## Otsailak 1, igandea

-17:00. **Ipuin kontaketa.** Agirre jauregiko Ispiluen gelan burutuko da. 17:00etan Haur Hezkuntzako haurrentzat; 17:45ean, Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3. mailakoentzat; 18:30ean, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako neska-mutilentzat.

## Otsailak 3, asteartea

-San Blas eguna.



-19:00. **Korrika Batzordearen** bilera, Zuhatza Euskara Elkartearen bulegoan. 19. Korrika Debatik martxoaren 23an pasako da. Guztion parte-hartzea beharrezkoa delako, zatoz zu ere batzarrera zure ekarpena egitera!

## Otsailak 4, asteazkena

-Santa Ageda bezpera.

## Otsailak 8, igandea



-8:30. **Mendi irteera: Arantzazu-Artzanburu-Urbi-Arantzazu,** Burdin Kurutz M.T. eta Luzaro ikastetxeak antolatuta.

## Otsailak 12-17

-Inauteriak 2015. Egitarau berezia antolatuko da.

## Lehiaketa

## -VII. Elkar Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa.

Haurren eta gazteen artean irakurzaletasuna bultzatzea du helburu. Horretarako, bi modalitate antolatu dira, haur eta gazteen adinaren arabera. Ipuin bat ilustratu beharko dute batzuek, eta ilustrazioak ipuin bilakatu bestee.

Informazioa eta oinarriak: [www.elkar.com](http://www.elkar.com) atarian.



## Ikastaroak

-KZguneak goizeko ordutegia izango du urtarrilean: 11:00etatik 13:00etara egongo da zabalik. Urtarrilaren 26tik 30era bitarte, oinarritzko in-


ternet ikastaroa eskainiko du. Informazio gehiagorako, kontsultatu [www.kzguna.net](http://www.kzguna.net) ataria edo deitu 943 02 36 29 telefono zenbakira.

## Pailazoen ikuskizuna

-Pirritx, Porrotx eta Mari-motots pailazo ezagunak Debara datoz "Txo, Mikmak txikia" izenburuko ikuskizun berria eskaintzera.

Otsailaren 13an (ostirala) izango da hitzordua, arratsaldeko 17:30ean Aldats pilotalekuan.

Debako Udaleko Kultura Batzordeak antolatu du ekimena, eta sarrerak salgai daude Turismo Bulegoan.



## ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **otsailak 6, 7, 8, 16, 17, 18, 19.**

Burgoa Zuazo: **urtarrilak 23, 24, 25.**  
**otsailak 2, 3, 4, 5, 20, 21, 22.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

**ZALDUEGI: 669 262 201**  
**BURGOA ZUAZO: 667 338 890**  
Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: otsailak 7 eta 14

BURGOA ZUAZO: urtarrilak 24 eta 31  
otsailak 21

9:30 - 13:30

**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezin Zerbiztuak  
Aholkularitza  
Higiezin Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)




**MULTIÓPTICAS UZURI**

OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS Uzuri**

ZURE  
ENTZUMENA  
ZAINTZEN



**Mikel**

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel./faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

**A D**

**ASESORIA DEBA C.B.**

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Edure: 669 895 619

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482  
HONDARTZA, 2 - BEHEA  
20820 DEBA (GIPUZKOA) ase.deba@teleline.es


**atari**

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel.: 943192263  
www.atarideba.com

**Lizaso**  
Autozerbitzua

Lersundi kalea, 21  
Tlfnoa: 943 19 27 29



**ITXAS GAIN**  
Taberna  
**ITXAS GAIN**

Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Natarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

**oskarbi**

Pintxoak  
Ogitartekoak  
Plater Konbinatuak

Lersundi Kalea, 9  
Tel. 943 029 469 - 818 844 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)



**ALBIZU**  
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

**IGARZA**  
TABERNA

Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

**IZENBE**


- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA




**GENOVEVA**  
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



**ZALBURDI**

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03



English Academy  
**NORTH STREET ENGLISH**

Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba



**Bordatxo**  
JATETXEA

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 14:00  
Aitariak: 20:00 / 23:00

# 19.<sup>æ</sup>korrika EUSK AHAL DUN!

Urepeletik Bilbora  
2015eko martxoaren 19tik 29ra

Debatik martxoaren  
23an igaroko da.

Korrika Batzordea laster  
hasiko da lanean.  
Zatoz zu ere zure  
ekarpena egitera.  
Lehenengo bilera  
otsailaren 3an  
egingo da, 19:00etan  
Zuhatza Euskara  
Elkartearen bulegoan.

## MATRIKULALDIA ZABALIK

Izena emateko epea  
otsailaren 13ra arte.

Etor zaitez eta informazio  
guztia emango dizugu.

**UDAL  
EUSKALTEGIAK**  
ikasturteacurso **14/15**



DEBABA UDAL EUSKALTEGIA  
Ifar kalea, 12  
Telefonoa: 943 19 22 36  
e-posta: debaba.deba@telefonica.net

**Euskaraz  
blai**  
Empápate  
de  
Euskera